

Nafarkaria

Nafarroako Gehigarri Berezia / Ostirala, 1992ko otsailak 21

Aingeru Epaltza



AMEN ETA OMEN

Nafarroa berriz ere eztabaidagai den honetan, harri eta zur nago nola dabilzan berriz dantzan, abertzaletasunak 1977-1982an hemen bizi eta aldi berean eragin porrot historikoaren ondoan hain erabilgarri gertatzen ziren aitzaki eta kontsolagarri merkeak. Salbuespenak salbuespen —Jose txo Azkona, joan den astean—, porrot horren zergatiei ihes egiten zaie, balekebele, bat baino gehiagoren estrategia politikoaren ezdeusa irringarri gerta ez dadin. Autokritika ezean, beraz, garai hartako frakasoaren zurigarri eta aringarrien eske joan dira batzuk sabaioko kutxa zaharrra.

Konparazione, Nafarroako probintzia bakarreko autonomia gisa omen duen ezintasunarena aspaldi ez genuen aditzen, jeltxideek oroiterazi diguten arte. Josu Txuekak 'atrizioa' deitu duen hori. Bilboko Udalaren zorrak, kasurako, Nafarroako Gobernuarenak baino haundiagoak direlarik, pentsatzekoa da Urralburu, Aizpun, Del Burgo, Alli eta gainerakoek ileak lastuak dituztela jadanik, Foru Komunitate honen etorkizunaren ilunaz.

Aldiz, 'Nafarroaz ahanzten den Estatutua' sustatu zutenen erantzunkizun larrriaren leloari Iñaki Zabaletak inarrosi dio errautsa. Hamaborts urteren ondoan EHU-ko irakasleari ez bide zaio oraino kaskoratu arabar, bizkaitar, edo gipuzkoarrak asperdurak higituak egon litezkeela, ekialdeko anai-arreben besarkadaren esperoan gelditu balira.

Hondar hilabeteetako hilotz pilaketa medio, 'negoziaketa' hitza aho-mihietan dabile. Harritua naiz, ordea, zein guttitan aipatzen den negoziagaita. 'Amnistia ez da negoziatzen' eta gisakoez oroitzen garenok frogatu ahal izan dugu alor honetan, bederen, badela aitzinamendu. Hala ere, inoiz mahairik berriz biltzekotan —eta hori ere ikuskizun dago—, baietz Nafarroa intentzio deklarazioetarako utzi!

Hainbertzenarekin, arras penatua naiz berreskuratutako diren aspaldiko ergelkerien artean gazteriari dagokiona ez baita inon ere ageri. Pollita zen, oroitzen zarete? «Zaharrak kontra ditugu, baina gazteak ez, gazteak gure dira eta haiek emanen diote honi buelta», entzuten genuen hautestondo bakoitzean. Eta horretan bat heldu ziren iraultzaile nahiz erakundezaileak. Haiei saldoka etortzen zitzaizkien mundua jateko preste ematen zuten nerabe sutsuak. Horiek, aldiz, bazuten esperantza abertzaletze lana bertzeek egin ondoan, urteak bete ahalean, kaskarinek zentzutu eta berengana joko ote zuten. Ez zeuden arras oker; egoerari buelta eman behar zioten horiek adinean aitzina egin dute eta haietarik aunitz zentzutu eta zentzutu dira. Barrikadak uztearekin, ordea, urtu ere zaie beren bihotza apenas tindatua zuen kolore zuri-berde-gorria.

Erranak erran, ni erne. Segur naiz gazteriarena ere inork errepikatu digun, zozokeriaren revival honetan.



Olazti eta Erriberri, ihote zaharrak berri

Olaztin 1937an galdu ziren iho-teak. Erriberri 1936tik ez dira ospatzen. Burundako herri industrialean herri osoak hartzen zuen parte, nekazari eta abeltzantzarekin lotutako, mozorroen bidez, eta ongarri botatzen zioten jendeari. Zidakos ibaiaren ertzeko hiri momumentalean udalarekin batera kalez kale erronda bat egiten zuten, errautsak botaz eta jendea zirikatuz. Olaztin diruba, urdaia, lukarikia, maiza eta tripotiak eske faten ziren etxez etxe;

Erriberri txistorra, txerri opilak eta txerrikiak jasotzen ziren. Olaztin nurriz jantzita ateratzen ziren gazte zein zaharrak, aurpegiak zikinduta; Erriberri, larruz estalirik, kopetak lohituta.

Olaztin duela bi urte hasi zen neska bat ihoteak berriro berreskuratutako nahian, eta Erriberri bertako dantza taldeak hartu zuen ardura. Biak aurten ospatuko dira berriro, hilak 29, larunbata. Ihote zaharrak berri.

Barnean

TOPONIMIA



Leitzako leku izenez kontu kontari Joxemiel Elosegirekin/IV-V

ARDANDEGIAK



Erriberri inguruko mahastizainak elkartzeko proiektua/VI

Gure Aukerak

MUSIKA

Javier Zuazu pianojolearen kontzertua izanen da gaur ostirala, gabeko zortzietan, Tafallako Kultur Etxearen aretoan. Bertako Kultur patronatuak antolatuta, eta 'Gai-nontzeko musika' izeneko zikloaren barruan, 'New Age' tankerako musika izanen da entzungai.

Moscuko Bolshoi antzerkia eta abesbatzak' taldeak kontzertua emanen du heldu den asteazkenean, hilak 26, Iruñeko Gaiarre Antzokian, arratsaldeko zortziak laurden gutxietatik aurrera. Bertan Tchaikowski, Debussy eta Ravelen lanak izanen dira entzungai.

Los Suaves' musika taldeak joko du gaur ostirala, hilak 21, Lakuntzako Iargia dantzalekuan, gabeko hamarretatik aurrera kanpotarrendako eta beranduxeago bertakoendako.

MINTZALDIAK

Georgia eta Euskal Herriari buruzko mintzaldia emanen du gaur ostirala Xabier Kintana euskaltzainak, Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarrean eta arratsaldeko zortzietatik aurrera. Ekitaldia Arturo Kanpion euskaltegia bere urteurrena ospatzeko antolatzen ari den egutegiaren barruan dago.

Emilio Majuelok historiagileak 'Del capitalismo. Catolico-agrario al Cooperativismo empresarial' izeneko liburua aurkeztuko du gaur ostirala, hilak 21, Burlatako Axular Kultur Elkartearen. Mintzaldia arratsaldeko zortzietan izanen da.

ERRAN DUTE

Gizonak gehiago hitz egiten du publikoan, eta emakumeak, gehiago pribatuan»

Jasone Zenoz
Filologoa

«Hau, batzutan, kultur etxea baino eroetxea da»

Javier Aierra
Tafallako koordinatzaile kulturala

«Peñek ETak eta HBk dararmaten estrategia berbera burutu nahi dute»

Alfredo Jaime
Iruñeko alkatea

«Zaila egiten zait ulertzea jendearen botoak»

Javier Iturbe
Iruñeko PSNko zinegotzia

Bi Nafarroen arteko mugak


Aragoiko herriekin mugetan, oli-bondoak, mahastiak, herri handiak eta bateratuek garbi erakusten dute Nafarroako helgoaldetik gertu gaudela, iparralde bertan egonda ere. Bi Nafarroen arteko mugak dira.

Judaseko bentatik hartu eta Aibar topatzen dugu lehendabiziz. Izkoko mendizerraren magalean, etxeak, elizaren inguruan pilatuta, errektangularrak dira, eta bi uretako teilaturarekin. Hemengo populazioa erabateko atzerapena jasaten ari da, gaur egun 1900ean zuenaren erdira ere ez baita heltzen. Monumentu franko: elizak, gurutzeak, zubiak, baselizak...

Casedan, herriko muinorik altuenetik, Aragoi ibarraren gainetik ikusmira ederra antzeman dezakegu. Herrian bertan dauden lau zubiak ere azpimarratzekoak dira, eta gomentatzekoak da bertako babarrunak eta ardoa, famatuak oso.

Zangoza da inguruko herririk garrantzitsuenak, eta oso gune azpimarratzekoak, bai dauden aziendeendako nola mendialde eta erriberarendako den topagune izateagatik.

Bertan dauden hondakinek garbi adierazten dute erromatarrek presentzia handia izan zutela beste ga-



raietan. Ondoren ere herriak garrantzi berezia izan zuen Nafarroan, eta beti izan zuen ordezkari Gortean.

Xabierreko gaztelua ere sinbolo bihurtu da Nafarroa osoarendako, eta urtero egiten den prozesioa lurraldeko garrantzitsuenak da. Iesan, bestalde, astialdiarako toki aproposa da-

go, eta Leireko mendizerran, monastegia, funtsezko garrantzia izan duena mendeetan zehar. Berari buruzko lehendabiziko berriak XI. mende-koak dira, Iruñeko erresumaren gune intelektual eta erlijiosoaren zenean. Orduan bertako abadeak Iruñeko apezpikuak ere baziren. Desagertu ondoren, 1954an ireki zuten berriro.

KIROLA

Lergako gaina eta Galipentzuko gainaren arteko mendi ibilaldia antolatu du Club Deportivo Navarra mendigoizaleen taldeak igande honetarako, hilak 23.

ERAKUSKETAK

'Euskara Nafarroako gaztelan' izeneko erakusketa zabalik dago Nafarroako Museoan. Erakusketa hilaren 29ra arte izanen da irekia, eta bertan Nafarroan eguneroko

erderan erabiltzen diren hitz askoren euskal jatorria antzeman daiteke. Erakusketak Nafarroako Gobernuak antolatu du.

Enzo Vecino argazkilariaren lanak daude ikusgai Tafallako erakus-

ASTEKO PERTSONAIK

Miguel Sola



Oasunako jokalaria

Erdilari errubioaren azken denboraldia izan daiteke honako hau, laister barru — hiru edo lau hilabeteetan — bere kontratua berritzen ez badiote behintzat. 34 urtekin, txantrearrak agur esan diezaiok, beraz, futbolari, Athleticen eta Osasunan bere bizitza osoa eman ondoren. Azken bi urte hauek ez dira sobera onak izan erdilariarendako, eta mina dezentek eraginda, joku zelaitik kanpo aritu behar izan du frankotan. Gainera, gorritxoek egin dituzten azken fitxaketak erdikaldea sendotzeko izan dira, Solarengan zegoen konfidantza nolabait galduta dagoenaren seinale garbia. Zabalzarekin izandako zenbait arazo ahaztu nahi du orain Miguel Solak, eta begirada etorkizunean dauka paratuta dagoeneko, haurrekin entrenatzaile gisa aritzeko.

Mikel Castillo



Iruinsemea

Carmen kalean 1990ko irailaren 18an Mikel Castillo hil zuen polizia kontrako epaiketa da notizia egunotan Iruñean. Bertan deklarazioa egin zuten joan den asteartean Carlos Perez Ojuel eta Bautsita Barandalla ustez ETakideek. Gertarak polizi bikoteak kotxe batean zeuden hiru lagun identifikatzerakoan gertatu ziren, Aldapa kalean. Ondoren, eta polizia adierazpenen arabera, zenbait tirabira izan ziren, eta Mikel Castillo ihes egiteari ekin zion, poliziak atzetik segitzen ziola. Carmen kalean poliziak zenbait tiro bota zituen, eta horietako batek hil zuen iruinshemea. Epaietako punturik garrantzitsuenak Castillok arma ote zeraman argitzea bihurtu omen da, eta poliziek horrelakoak adierazten badute ere, zenbait lekukok kontrakoa azaldu dute.

Jose Carreras



Opera abeslaria

Kataluniako opera abeslariak hezurmuina emateko fundazioarako hitzarmena sinatu zuen joan den astelehenean Iruñean, Juan Cruz Alli presidentea bertan zegoela. Honen arabera, hezurmuin emaile hartzeko kanpaina bat jarriko da martxan, eta izenak 'Jose Carreras' izena darman fundaziora pasako dira. Fundazioak funtzionamendu kostu eta publizitatearen ardura izanen du, eta Osasunbidea hezurmuninen analisi egiten eta aurrera eramaten arduratuko da. Odol emaileen elkarte saiatuko da denak koordinatzen, eta egitasmoa hiru epetan garatuko da. Lehendabizikoan, gaixotuen familiarrei dago zuzenduta, bigarrena emaileei, eta hirugarrena, populazio osoari. Oraindik ofizialean martxan ez badago ere, Odolaren Bankuak 25 bat pertsona dauka zerrendan.

tokian, martxoaren 1 arte. Argentinarrak bere azken lanak paratuko dituz bertan, eta erakusketa Kultur Patronatuak eta Higuera taldeak da antolatuta.

Herri kirolari buruzko erakusketa dago ikusgai Zangozako Kultur Aretoan. Erakusketa Carmelo Alcalá iruinshemeak egindakoa da, eta Nafarroa osoan zehar egiten ari den ibilbidearen barruan herri honi dagokio orain eta martxoaren 22ra arte.

ANTZERKIA

Hitz-Anaitasuna' taldeak 'Lisistrata' antzezlan aurkeztuko du gaur ostirala, hilak 21, Iruñeko Gaiarre Antzokian, gabeko hamarretatik aurrera. Anaitasuna kirol-kultur elkarteak antolatuta, Aristofanesen lan hobereetakoa dastatzeko parada.

ZINEMA

Haurrendako zikloa dago ikusgai Tafallan, bertako Kultur Patronatuak antolatu duen zikloaren barruan. Horrela, 'Los Supersonicos' ('Supersonicoak') filmea, larunbata, hilak 15, arratsaldeko seietan, eta igandean, hilak 16, arratsaldeko 15.45etan, bertako Cinema Español zinemaretoan.

Colon: ez haiz deusetaz kanteatzen: Quechuak eta Aimarak' deritzaneko diapositiben emanaldia eskeiniko dute gaur ostirala, arratsaldeko zortzietan, Club Deportivo Navarra Iruñeko Jarauta kalean duen areto nagusian. Emanaldia Pello Lezaun eta Begoña Merlok aurkeztuko dute.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Astelehenean 22.00etatik 23.00etara... Gaueko irrintzia musika saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... Informazio Saioa Baztan, Male-rrera eta Bortziritako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteartean FMn 22.00etatik 23.00etara... Gautxori irratsaio musikala. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsona ospetsuei elkarriketak.

Olaztiko zamarrak eta auntsaiak

Gerra aurretiko garaian desagertu ondok, mendeetan zehar herriak ospatu ziren ihauteriak berreskuratu ziren Nafarroako zenbait herrietan. Paganoak eta ba-

tzutan beldurgarriak, beti ikusgarriak. Aurten Olazti eta Erriberrin ospatuko dira berriro lehengo erara, bertako jendeak egin duen lanari esker.

MATTIN KAPITANSORO / OLAZTI

Olaztin, beste hainbeste herrietan bezalaxe, gerra garaian desagertu zen ihoteak ospatzeko ohitura, hasieran gerrarekin berarekin, ondoren, prohibizioak zirela medio. Aurten, eta Adelaida Kintana olaztiarrak duela bi urte hasi zuen bilketa lanari esker berriro kaleetan arituko dira zamar handiak, zamar txikiak, auntsaiak, basozainak eta abarrak.

Lehen, hiru egun zituzten Olaztiko ihoteek: Lardero Eguna, Domeka Zamar Txiki eguna eta Zamar Handi eguna. Herriko auntsaia Lardero Egunean eske ateratzen zen, goiz goizean, zesto eta zaku zuri batekin, eta atai batera iristean etxekoandeari deitzen zion. Lukarikia, urdai puska, lauzpabost maiz burubak edo diruba ematen ohi zioten auntsaiari, eta honek, bitartean, abestu egiten zuen: «Eskean despeituta gero, bazkaltzera».

Halaber, Olaztin baizaiak zelai edo basozainekin joaten ziren goialdera—goiko auzoa—edo azpialdera—beheko auzoa—. Badirudi horiek auntsaiari laguntzen ziotela.

Mende hasieran abereak edo ganadua zeukaten familiek—ia herriko gehienak—medikuari, auntsaiari, baizaiari eta basozainei ordaintzen zieten. Nola? Urtean bi labore eskeintza egiten zuten. Bata garia zen eta bestea maiza. Erabakitako egunean udaletxean uzten zuten. Udalak garaua saldu ondoren pertsona horiei

NEKAK

zerbitzuak ordaintzen zizkien.

Domeka Zamar Txiki jaiia domeka arratsaldean ospatzen zen. Gazteak, neskak eta ezkonduak, zamarrez jantzita ateratzen ziren. Zamar jantziek aurpegia beltzez—betunez edo ikatzez—margotzen zuten. Beste batzuek, berriz, ardi baten

edo hartz baten maskaraz edo karatuloz estaltzen zuten. Fariak eta kamantxilak larruzko lepezaldietan zeramatzen.

Zamar jantziek kaleko haurrak izutzen zituzten eta hartzen zutenari aurpegia zikintzen zioten, izkaturik zeramatzen lokatzaz edo ongarriz.

Plazan, Herriko txistulariek ttun-

ttuna eta danbolina jotzen zuten abemarik izan arte. «Abemarik jotzen zenian despeitzen zan musika».

Dantza bukatzerakoan karatulak desagertzen ziren eta neskak plazaik joaten ziren. Domeka Zamar Txiki eguna, ofizialki gutxienez, bukatuak zegoen.

Zamar haundi egunean—ihote-tako asteartea—, batzuk goizez agertzen ziren maskaraturik, baina ihauteriak arratsaldean animatzen ziren. Orduan kaleak zamar jantziak ziren, leku guztietara iristen baitziren. Olaztik karnabala edo ihotea bizitzen zuen orduan.

Dantza ondoren gazteek etxe etxe eskatzen zuten danbolinarekin, oihuka, garrasika eta irrirtzika. Gazte batek dirubarako poltsa zeraman eta beste lauek ongari zestuak eramaten zituzten jakiak hartzeko.

Eskaera honetan diruba, urdaia, maiza, ogia, lukarikia eta tripotiak ematen zizkieten. Hartutako dirubarekin eta arto salmentaren dirubarekin jaietako gastuak ordaindu, eta sobran gelditzen zena gazteen artean banatzen zuten.


Azken Zamar Txiki eta Zamar Haundiak 1937an ospatu ziren. Azken ihoteetan, Zamar Haundi eguneko arratsaldean konpartsa bat ateratzen zen. Zenbait neskek elizako argizariak gordetzen zituzten saskitxoetan eta diruba eskatzeko erabiltzen zena buru gainean jartzeko erabiltzen zuten, kolorezko zintekin apainduta. Aurpegian zapi txuri bat edo kartoizko karatula bat zeramatzen

ZAMAR HAUNDIAK

zuloekin, begiak, sudurra eta aborako. Bizkarrean burudi bat zeramatzen «kapa bat bekela».

Abemarik jotzen zenean Zomorro edo zamarroek maskara kentzen zuten eta zortzikoa, jota eta purrusalda dantzatzen zituzten. Gero desagertu egiten ziren.

Aurtengo ihoteak larunbatean ospatuko dira Olaztin eta bertan auntsaia, baizaiak, basozainak eta abarreko pertsonaiak aterako dira, txuntxunek lagunduta.



Karatuloak eta peleleak Erriberrin

M.K. / ERRIBERRI

Erriberrin ez dira ihauteriak ospatzen 1936tik, baina 1925-1936 bitarteko epe horretan ere debeku franko jaso zuen festak, batez ere maskaren erabilera zela eta.

Ihauteriak berreskuratzeko ideia eta lana bertako Txibiri taldetik etorri da hiru urtetan, bai artxibotik ateratako dokumentuen bidez nola zaharren adierazpenen bitartez. Musika Iruñeko gaiteroek osatu dute, eta bandarako konponketak ere egina dira.

Mozorroei buruzko informazioa banatu da herrian zehar, eta giroa animatzeko bazkaria prestatu dute taldekoek larunbaterako, hilak 29, nahi duen guztiak parte har dezan.

Arratsaldeko lauetan bilduko dira partaideak plazan, eta arratsaldeko sei terdiatarako dago iragarrita prestatu duten pregoiaren irakurketa. Ondoren, erronda egingo da herrian zehar.

Lehengo ihauteriei buruz udaleko artxiboan aurki daitekeen lehendabi-

ziko aipamena 1600ekoa da. Bertan agertzen denez, aspaldiko ohitura zen udaleko partaideek gabez erronda egitea herriko kaletik zehar, lagun askoren laguntzaz. Aurretik dantzariak eta danbolinak joaten ziren, eta herritarrek ate guztiak garbi izan behar zuten, eta etxe aitzian suteak pizteko ohitura zen.

1884ean eta zenbait bizilagunen kexuek eraginda udalak traba zehatzak paratu ziren ihauteriei, sobekeri eta istiluak ebitatzeko, eta armada eta elizen inguruko mozorro guztiak debekatu ziren.

Hiru egunetan egiten ziren ihauteriak: igande, astelehen eta asteartetan, baina bere azken garaian soilik asteartetan egiten ohi ziren. Igandean puska eske ibiltzen ziren gazteak, koadriletan bilduta, eta txerrikiak jasotzen zituzten. Ondoren, benduba egiten zuten bildutakoarekin.

Astelehena, gizonezkoendako laneguna izanda, emakume eta umeen eguna zen, eta bere jai partikularra antolatzen zuten.

Asteartean eguerdira arte laneguna zen, eta bazkaria berezia izaten zen: txerri belarriak albardatuta eta torrijak postrerako. Arratsaldean, ihauterien desfilea hasten zen.

Pertsonaia frankok hartzen zuen parte, eta garrantzitsuenetakoa karatuloak. Aurpegia erabat estalia kartoizko maskarekin, paiaso edo arlekinen modura jantzita ateratzen ziren, etxean egindako jantziekin nahasirik.

Animalien irudiak ere oso ugariak ziren, sorbaldak narrukin estalirik. Praka eta atorra iluna, bortzegiak eta adarrek osatzen zuten janzkera. Askotan fariak zeramazkiten zintzilik.

Peleleak desfilean bertan agertzen ziren, lasto eta belarrez beteta, eta askotan gazteek astindu eta balikoietan zintzilik uzten zituzten. Mozorroturik zeuden beste pertsonaia batzuek puntan piku bat zeukan makilak zeramatzen, eta haurrei eskeintzen zieten, makilkaden truke.



ZAMAR TXIKIAK

Leitza beti haundi. Leitzarra beti arrandioso. Bi modutara bereiziko dizu inoiz bertakotuko ez den kanpotarra ere. Leitzarren graduko ez bazara: Juan ezkurra,

Pello eratsundarra, edo Maria goizutarra izanen zara beti. Leitzar arrandiz goitik bazabiltza: Baleztenena, Izetena, De Diosena... beti. Sekulan ez Mariano

iruñarra edi Joxe donostiarra. Hartara Leitzaren ttikia salatzen baitzenuke. Azkeneko hauetakoa dugu Joxemiel. Leitza beti Elozegi. Sekulan ez tolosar.

Leitzako toponimiaz kontu kontari

PATZIKU PERURENA / LEITZA

Baina, kontrakoak ere aditzen dira tarteka. Arrandiaren espak ez barkatzen nonbait. «Orrek erakutsiko zein guri, emengo berri...». Hala eta guzi, mendizaletasunean, mikologian, biologian, etnologian, leienda zaharretan, musikan, datu historikotan, edo beste zernahi kontutan, han azalduko zaizu beti Leitza nondik edo handik, Joxemiel Elozegiren ukitua, kontsejua, eritzia, zuzenketa, salaketa, edo dena delakoa. «Elozegi esan omen du...».

GALDERA.— Zerk eraginda hasi zinen, Leitzako toki izenak biltzen?

JOXEMIEL ELOSEGI.— Ba, neri gustatu izandu zait, non nagon eta nagon lekun zer dagon jakitea. Beti ortan saitu izandu naiz. Gaiñera, etxean ere betidanik giro ori ezagutu izan det. Osaba batek lan aundik egin zitun ontan: Aralarako bakarrik, lau mila toki izen baiño geio bazekizkin. Nere familiakoak berriz, Tolosako toponimia bildu due. Ni giro ontan aza naiz. Orregatik asi nintzan emengo toki izenak biltzen.

GALDERA.— Nola moldatu zara izenak biltze lanetan? Ongi erantzuten al dizu jendeak?

ELOSEGI.— Bueno, ni beti ibili naiz galderak egiten. Batzuk, ongi erantzuten diate. Beste batzuk, errezero txarrakin: zertarako ari nintzan, zenbat pagatzen ziaten galdezka. Olako lanetan, jenden borondatea seitun ikusten dezu. Gero galdera nolako egiten dezun, erantzuna ere alakoa izango dezu. Kontu andia bear da galdera egiteko orduan: toki izenik aipatu gabe; inguruko izen jakinak galdetuz; zearkako galderak egiñez eta ola...

GALDERA.— Eta gero, jendearen ahotik jasotako izen horiek, mapa eta eskritura zaharretan ageri diren izenekin bat datozen ikusten eta, ibili al zara?

ELOSEGI.— Ni ez naiz ibili mapak eta eskriturak ikusten, oraindik beinipein. Neri iduritzen zait, lenda-bizi toponimia bizia bildu bear dela, tokian tokiko jendeagandik jaso. Gañera, dokumentu kontuan, orain

arte esaten zan, izenik zarrenak balio dula, baiño ori ez da beti ola gertatzen. Oker asko izaten baita dokumentutan.

GALDERA.— Zer moduzko tratamendua ematen zaie toki izenei hemengo izkribu zahar ofizialetan, eta bereziki Leitzako Udalekoetan? Nabari al da alderik, garaian garaiko alkatetza batzutatik bestetara toki izenen tratamenduan?

ELOSEGI.— Ez zaio eman bear bezin tratamendu ona, ta arrazoa da, eskribauak eta sekretarioak askotan eraldunak izan dirala, ta toki izenak alde aldera idazten zituzten. Alkatek gauz ortan beinpe etzien sartzen, bai zik eta sekretarioak eta katastroko lana iten zuen eskribientek. Toki izenik geina, katastroko paperetan eta eskritura zarretan ageri da. Neri batek baiño geiok esan dit: «Alako izena gure etxeko eskritura zarretan azaltzen da».

GALDERA.— Baina nola iristen ote zen toki izen hori sekretariongana? Interesatuaren ahotik zuzenean jasotzen ote zuen eskribientek?

ELOSEGI.— Bai, baiña, naiz jabeak ondo esan, eskribitzeko garaian batzutan beste aldera jartzen zuan eskribientek, Izen berbera mila modutara ageri baita eskrituratan. Konparaziora, oraindik jende guzik Leitza Amabitturritan esaten duena, 1707an, Aman Yturrieta ageri da, 1798an Amaviturrieta, 1852an Amabizturrieta, 1894an Amariturieta. Orregatik, esaten nun len: ezin da dokumentu zarrena obenetzat artu.

GALDERA.— Horrez gain, denborarekin tokiz aldatzen edo desplazatzen joan zen izenik ere izanen da, ezta?

ELOSEGI.— Bai bai, badira bat edo beste. Batzuk mapatan gaizki jarri direlako, eta beste batzuk, jendea pixkanaka pixkanaka erabili alean desplazatzen joan delako. Meatzetxarreta, esate bateko, Katalintxoneko belatsoari, naiko zelaia danari, deitzen dio ayuntamiento paper batek. Asi nintzan bazterrik ikusten, ta juxtu, Katalintxoneko belatson paren, errekarz pasa ta beste aldera,



● Leitza elurretan, Okabio mendipean.

leku malkar baten antxe billatu nitun mina zulo zar batzuk. Bistan zegoen ura zala Meatzetxarreta, ta ez Katalintxoneko belatsoa.

Alare, orain askoz okerrago erabiltzen dira izenak. Len oinez ibiltzen zen jendea, baiña orain kotxeekin. Istegiko Lepotik aruntz, bada mendi bat Artzabaleta izena duna. An eztago leku egokirik kotxeri buelta emateko, ta orain aurrerago joanda kotxek buelta ematen duen lekuari esten diote Artzabal, kilometro bat aurrerago moitu due izena.

Albiño izenarekin gauza bera. Iztarik Albiñotik barrena joaten die kotxen Elautsaundiko uso paradataño, ta orregatik Albiñoko paradak esaten dioa, izena bere lekutik kilometron bat aurrerago moituz, ta ango izena, Elutsaindi aztutzera utziz.

GALDERA.— Izen asko al da, izkribu zaharretan ageri dena, eta herriak ez dakiena, edo alderantziz gehiago?

ELOSEGI.— Nik ezin esan ori. Eskritura zarrak gutxi ikusi baititut. Baiña, emen zerrenda bat badauket orain dela berreun urtez onuntzakoa, ta or badira izenak orain erriak gogoan ez dituenak. Baiña, beste aldetik, katastroko paperetan datozen baiño askoz izen geio dakizki erriak. Nik milla eta berreun izen bildu baditut, katastroko paperetan, asko botata, ageriko dira bosteun. Orrek esan nai du, beste zazpireunak jenden aotik jasoak dirala.

GALDERA.— Egin al liteke azterketa diakronikorik, edo ez du hainbatekorik ematen gure toki izenei buruz bil dezakegun materialak? Izanen ba da, toki asko, lehengo izena eta gaurkoa, erabat desberdinak dituenak, ezta?

ELOSEGI.— Bai, bai. Ori alaxe da. Gaur Astaitzaga bakarra da, baiño

garai baten iru baserri ziran. Astaitzaga Goikoa, Astaitzaga Erdikoa eta Astaitzaga Bekoa. Orain berriz, izen oriek ola dira: Goiko Borda, Boxikan Borda ta Astaitzaga. Or ikusten da, Astaitzaga izen bakarretikan, gero izen patronimikoa atera dela: Boxikan Borda.

GALDERA.— Egin al duzu ikerketa berezirik, toki izen jakin batzuren sorburua, historiala, eta abar biltzen? Edota jendeak toki izen baten zergatiak eman dizkizunean, jaso al dituzu literatura edo historia aldetik beren interesa izan lezaketenak?

ELOSEGI.— Len esan dizuan bezala,

Len oinez ibiltzen zen jendea, baiña orain kotxeekin. Istegiko Lepotik aruntz, bada mendi bat Artzabaleta izena duna. An eztago lekuik kotxeri buelta emateko, ta orain aurrerago joanda kotxek buelta ematen duen leku ari esaten diote Artzabal, kilometro bat aurrerago.

ni ez naiz dokumentu zarrak ikusten ibili, baiña, alare etorri zait jendea, toki izen batzun ixtoria kontatuz. Esate bateko, Frantzesen Iartzaz izenaren ixtoria. Badakizu, Konbentzioko Gerran frantzesak igesi joan ziela, ta an arkeitzen pasatzekoan, bota egin zituzten goitik bera, ta il egin zituztela eztaikit zenbat. Ba, artatik gelditu da, Frantzesen Iartzaz izena.

Beste izen bat, Artzulo dezu. Neri


goizutarrak esaten ziaten, azkeneko artza an il zela orain dela irureun bat urte. Baiña ni asi nintzen Pontxito Irurtiari ta galdetzen, ia dokumentuik ba ote zeon, ta ark esan zien, Leitza azkeneko artza Betranekoak il zula. An il ote zun? Auskalo.

GALDERA.— Nola arraio sortzen da zenbait toki izen? Eta nola arraione gelditzen gero, herriaren gogoan zehazturik? Esate bateko: Kitarran buelta Plazaola Trenari zor izanen zaio; baina, nori eta nola bururatu ote zitzaion izen xeble hori? Hutsa, behin batek esatea! Bina, nola arraio egin ote zen ordea herri guziaren gogoko? Ahoz belarrirako errepika hutsaz? Ezin dut sinistu.

ELOSEGI.— Nik ezin dizut esan ori. Orixe da toki izenen misterioa, eta baita giza irudimenak sortzen dituen itz eta esatera guziena ere. Orain dela ogeitamar urte, etzen erabiltzen erderaz «estar al loro, estar despistado» eta holakorik. Baiña gaur edozein erabiltzen ditu. Noiz eta nola sortu ote ziren? Orixe da izkuntzaren misterioa. Olakoak urtero ta pillaka sortzen dira.

Esango dizut, toki izen baten kasoa. Badakizu, Errementanekoak, etxe berrie nola egin zuten or, Goiko Errotako beste alde ortan. Etxea eginda izena jarri bear ziotela asi, ta apazaren batek edo... esan omen zioten: «ze izen jarri eztaizuela zabiltzate? Bakarrik nola dagon: Solaborda jarriozue». Ta alaxe, Solaborda jarri zioten, ta erri guzik alaxe deitzen dio orain. Gero, emendikan berreun urtera, etimologistan bat etorriko da, ta auskalo zer aurkitzen duen Sola ortan.

GALDERA.— Izen baten atzean gordetzen diren xehetasunak ere bildu izanen dituzu jendearen ahotik?



● Errekaldoko auzoan, Ibiur baserria, Astanbela eta Leitza errekar elkar-tzen diren lekuan.

ELOSEGI.— Bai bai. Orain goatzen naizena, bat, Bidagorrieta izenaz esan ziatena. Alzegi eta Urepelko palda ortan dago Bidagorrieta, naiko leku aldapa, ta esan ziaten, garai baten idikin minerala eramaten zutela or barrena, Pasai aldera edo. Esan liteke orduan, Bidagorrieta izenak, nekebide edo antzeko zerbait esan dula. Gaiñera, idik negarrez joaten omen ziran aldapan gora ezinean, ta Bide-malkota ere deitzen omen zioten beste batzuk.

Inguruko erritan otsoan toponimoak asko daude, baiña, ni arrituta nengon Leitza ez nula bat bakarrike billatzen! Noizbaiteko baten billatu nitun bi: Otsoan erreka, Otsamantenu. Batek esan zian, Santa Kruzitik Auzmendi aldeko malkar ortan auzmendiko zaldia egoten omen zala larren, ta negun otsoak ozkatu ta irrintzika etorri omen zala, etxera, Auzmendira, ta ordu ezkerotik Otsamentenu deitzen diotela. Baiña izen ori oso jende gutxi daki.

GALDERA.— Eta toki izen berbera herriaren ahotik hirulau modutara jasotzen duzuean nola moldatu zara? Esate bateko, sumatu dut jendea disputan: Eguzkiko muñoa ez, baina, Eguzkizko muñoa dela. Irigoiena ofiziala izanen dela, baina herritarra-koa eta ezagunagoa Putzen Borda.

ELOSEGI.— Gertatu liteke leku batek bi izen izatea. Olakotan, nik jendeari galdetu, ta geiena erabiltzen dena artu det, baiña, beti sinonimo bezala, bigarrena ere aldamenen jarritz. Esate bateko, batzuk Frantzesen Iartza deitzen diotenari, beste batzuk Luisen Zurrulloa. Baiño, izen au askoz gutxi erabiltzen da, orduan, Frantzesen Iartza jartzen det aurrena.

Baita, esaten dezu Eguzkiko muñoa edo Eguzkizko muñoa. Begira, nik orain dala ogeitamabost urte Leitza toki izenik ez nekin ezer, baiño nik bane-kin emen zegola Eguzkialdeko muñoa. Tolosa aldekoak eta, beti esaten gendun Eguzkialdeko muñoa. Baiño, gero

beste batek esan zian: «ori ezta beñe izan Eguzkialdeko muñoa, ori izandu da beti laoztizko muñoa». Ta: «Iaotiz non da?» galdetu nion. Ta: «Iaotiz da, asi Loiategiko lepotik eta palda ori dena goraiño».

Aipatu dezu, Irigoienea ere. Len ala zan, baiño orra nunbait joan zan bizitzera Joan Kruzen bat. Ta, asieran zan Joankutzen borda, gero, Joanputzen borda, ta azkenen, Putzen borda biurtu dana.

GALDERA.— Azterketa etimologikorik egin al duzu? Ni beti harritu izandu nauten izen batzuk aipatuko dizkizut: Aurtxikinea/Artxikonea; Urrestimiltxo/Miltxo; Gazpillo/Txopillo.

ELOSEGI.— Etimologi kontuk, beti dira arriskutsuk. Nik Miltxo beti pentsatzen nun, Miltxo ote zan, baiña, Sekretario zarrak esan zian, Miltxo sagar klase bati deitzen ziotela emen, baxaka klase bati.

GALDERA.— Leitza toki izenetan ageri den beste berexitasuna, patronimo ugaritasuna da, ni harritzen nauena. Pilipen borda, Domartin borda, Domielen borda, Domingo borda, Martimielenea, Ezkurraben borda, Mitxelaundi, Martiertzenea, Martxenea, Juantxenea, Juanenea, Abadeborda, Xeroren Borda, Indiano borda, Zortzikon borda, Laxaron borda, Juanaborda,.... Ez al dira horiek, oso etxe izen berriak?

ELOSEGI.— Jakiña, nik eztaikit noiz sortuak izango diran izen oriek, baiño, niri ala iduitzen zait. Nik ikusi dituan paper batzutan, Juanaborda ageri da 1760 urtean, baiño beste guzik gerogo azaltzen dira.

GALDERA.— Zein da toki izenak ongina ezagutzen dituna?

ELOSEGI.— Beti artzaiak. Gero, mendiko goardak, ta baserri ingurukoak, jakiñe, baserriarrak. Bakoitza bizi den inguruko izenak, normalean, asko dakizki jendeak, baiña, Erasotekoei ez galdetu Gorritzaran-ko leku izenak; edo Arkixkillekoei ez galdetu Sakuluko izenak. Izenik ezagunenak, bai noski: Aizan, Guratz, Okabio, edo Kornita denak badakie non diran, baiña gero toki tokiko xetasunak, bertan bizi denak dakizki ondoena. Gero, jakiña, izenetan tokirik aberatsenak, erri inguruak, baserri inguruak, eta borda inguruak ateratzen dira beti. Borda inguruan kilometro koadroan 20 izen badituzu, goiko mendi baten berriz, igoal iru lau bakarrik.

Erasote alden, esate bateko, Tuteneko attuna Joanek (geroztik ille danak) eta baita bere seme Mielek ere, izen asko eman diate. Leitza larre



● Putzenborda (lehen Irigoiena zena) Oialde gaineko paldan.

PERURENA

sortzen dizu, ez buru ta ez buztan; igoal lengo zarra kilometrotan aruntz edo onuntz moitu, ta ola, astakeri izugarrik iten die, gero ta aundigok!

GALDERA.— Baina, mapa bidez ikastea, ez al da hotz samarra? Eta kultura aldetik ere, zuzenean bizitakoaren eta sentitutakoaren liluririk ezean, zentzu haundi haundirik ba al du toki izenak buruz ikasten ari-tzeak?

ELOSEGI.— Ori ala da. Leku izenak, bertatik bertara bizi eta ikasi bear die. Baiño, orain jende ez ditu ain bea-

rrerko izenak. Len artzai batek, bea-rrerko zuen zeat meatz esatea ardi bat ille non zegoen edo beorak umea non egin zun, edo basur-dea non pasa zan, edo azeriak axuri non bota zun... Orain ori dena gal-tzen ari da. Aberek barruti komunaletan edo granjatan a-zi-tzen dira; gelditzen diran artzaiak ko-txen joaten dira bor-dara,.... dena aldatu egin da.

GALDERA.— Galera haundia al dakar horrek? Nolako in-portantzia du toki izenak, oro har, herri

baten kulturari?

ELOSEGI.— Inportantzi izugarria du, izenak ondo gordetzen badira beintzat. Orain ari da Nafarroko Diputazioa toponimia jasotzen; lau urtetan erri guzitako toponimia nai du jaso. Ortako urtero egin bear dituzte irurogeita bost edo sei erri. Batzuk oso errexak dira, beste batzuk oso zaillak. Ezta berdin, Goizutan biltzea edo Berrioplanon biltzea. Ta nik egin det, Leitza toki ta Aresokoa. Gero datu oriek denak artxiboan jasoko dira, eta or geldituko da balio aundiko gauza, gero nai duenak aztertu.

Baiño, lan au lenbailen egin bea-rrerko da, leku izenak ondo dakizkin jendea iltzen ari baita; ta gazteak ez daki leku izenik; aiengana alperrik joango zera.

GALDERA.— Metodologia zehatzik segitzen al duzue herrian herriko izenak biltzekoan?

ELOSEGI.— Bai, Nafarroko Diputazioak atera zun liburu bat, lana nola egin, arauak emanez. Bear bearrezko diren arauak ematen ditu, lan aundia egin dute ortan, baiño badira puntu batzuk, nere ustez, oker daudenak, esate bateko, 5.2.: Toponimo euskaldunak normaltzeko erizpideak. Artu due, esate bateko, Leitza, ta denari ibaia deitu bear zaiola. Ori ez da ola. Leitza ez baita sekulan esan ibaia, beti erreka. Orregatik, ezin li-

Toki izenak ondoen dakina artzaia da beti. Gero, mendiko goardak, ta baserri ingurukoak. Izenetan tokirik aberatsenak, erri inguruak eta baserri inguruak ateratzen dira beti. Borda inguruan kilometro koadroan 20 izen badituzu, goiko mendi andi baten, berriz, iru edo lau bakarrik.

teke jarri Leitza toponimian Leitza ibai edo Urumea ibai, normalizazio baten aitzakian. Ori kontradizio ikaragarria da: toponimiak, tokiz tokiko berexitasunak jasotzen ditu, baiño, gero berexitasun oriek ukatu bear badira, zertan ari gara?

Gaiñera, urak ez du izenik, urak pasatzen den lekuko izena artzen du.

Esate bateko, Goizutako eta Leitza-ko muga egiten duen Akolako erreka, gero, Zubiberriko erreka, gero Eleungo erreka, gero Intsus beiko erreka, gero Intsus goiko erreka, ta azkenen bitan banatzen da: Saminerreka ta Lizartza erreka. Izen oriek denak erreka berak artzen ditu.

Orduan, nik Leitza toponimo guzik entregatu nitunen, izen batzuk aldatu egin zizkiate, ta jakiña, niri ez zitzaidan gustatu. Jende oso pres-tua ari da, baiño errian erriko izenak bertako izkeran jaso bear due, emengo apofonia eta berixtasun guzik errespetatu. Naiz gero, Nafarroko mapa normalizatu baten gaina jarri, Leitza gañe ta Goizutan gaña esango due.

GALDERA.— Eskolatan, esate bateko, ez al litzake herrian herriko geografia, toponimia, ikasi bearko aurren aurrenezko, haurrak bertatik bertara bizi duena huraxe duelako?

ELOSEGI.— Ori bai. Ori bea-rrerko litzake. Zeatik, emen jakin bearko lukea, konparaziora, emengo erreka, Gorritzaran eta Erasote erreka osatzen duela; gero Erasotekoa, Orin eta Berlin erreka; eta Gorritzaran-ko, Otsoan erreka eta Uxulentinakoak.

Zinta bukatzekin, dokumentuak erakutsi zizkidan Joxemielek. Mapa eta maketa zoragarri banatan jarriak dauzka herri guziko izenak eta xehe-tasun guzik adieraziz. Lan guzia bukatutakoan dena txukun txukun, herriarentzat utziko omen du Udale-txean, gero nahi duena hartaz balia dadin.



● Gorritzaran auzoan, Urbita baserria, Urdantzaran eta Gorritzaran erreka elkartzen diren lekutik bertan.

PERURENA

Gazteendako Zokoa

Kukua

(Cuculu canorus)

Beste txofrakietan erruten du
Kantu berezia eta ezaguna
Ez da bikotearengandik urruntzen



Guraso txarra

Udaberria heltzearekin batera entzuten da ohian eta basoetan kuaren ohizko doinu ezaguna bezain sinplea. Ederki ezaguna beste txofrakietan erabiltzeko duen ohitura dela eta, gure basoetako txoririk berezietakoa dugu kukua.

Ajolabaiko oso bere arraultzekiko, beste txorien txofrakietan paratzen ditu, txantxangorri, buztanikara, txepetx, eta txinboenetan, bereziki. Horretarako, kukuak arreta handiz aztertzen ditu hauen ohiturak, eta bertatik alde egiten duten une bat aprobetxatuz, bere txofrakietan uzten dute arraultza.

Kukua beste kumeak baino lehenago jaiotzen da, eta ondoren beste arraultza guztiak botatzen ditu txofrakietan. Guraso berriek arazorik gabe onartzen dute apopiloa, eta berriena balitz bezala hazitzen dute.

Guraso txarra bezain senar jelskorra da kukua, eta ez da inoiz ere bere bikotearengandik urruntzen, beti bikote berberari jarraitzen dion ala ez oraindik guztiz argituta ez bada ere.

Loteriarekin aberatsa

IVAN MENDIOROTZ

Goiz hartan ez zegoen lainorik, goiz hartan ez zegoen hotzik. Joxe altxatu, leihoak ireki eta: «koño, koño, egun polita gaurkoa». Gosaldutxi, kafetxo bat eta bi kroissant. Kalera atera zen, ez zen arima bat ere ikusten. Enpararantzako kafetegian sartu eta hantxe zegoen Peio.

—Zer nahi duk? — esan zuen Peio.
—Txo, emaidak zurito bat.

Bere alboetara begira, hantxe zegoen egunkaria hartu eta: «Bonba batek egindako...», «ba, beti berdin». Erdetik ireki zuen eta hasi zen irakurtzen: «Allik ez zuen PSOEren proposamena onartu». Beste orrialdera pasa, eta irakurtzen jarraitu zuen.

«Loteriako atzoko saria...»

—Hemen duzu zuritua. Nola dabil mundua?

—Izorraturik.

Joxek irakurtzen jarraitu zuen. «Loteriako atzoko saria Bermeon jaso zuten, Bizkaian: 2654321»

Joxe harrিতa zegoen. «Hemendik hurbil jaso dute» pentsatu zuen «baina behar bada...» boletoa bere potsikotik atera, egunkariaren ondoan ipini eta... «2654321».

—Mekaguenoz!! Peio! Peio!

—Zer, burutik...? —ez zuen bukatu esaldia.

—Ikus ezak! —Joxek Peioren eskuetan utzi zuen boletoa.

—Baina, Joxe, loteria tokatu zaizu!! — Peio mugitu ezinik begira zegoen.

—Aa, ee, oooo... —Joxe koman zegoela zirudien

Peio ura aurpegira bota zion, eta orduan Joxe esnatu zen.

—Ezntzun denok —hasi zen gure laguna — Taberna guztia begira zegoen.

—Gaur, taberna honetan edaten den guztia, nik ordainduko dut.

Peio boletoa bueltatu zion eta Joxe tabernatik atera zen. Laister herriko Juan Carlos kalean zegoen gure Joxe.

—Xabi, Xabi!!

Norbaitek etxe batetik burua agertu zuen.

—Joxe, zertan zabilta? —esan zuen emakumeak.

—Mari, non da Xabi? —arnasa hartu ezinik.

—Portuan, lanean.

—Pozik nago, Mari, gaur nire miseria bukatu da.

—Lana aurkitu al duzu?

—Ez, ez, ezta pentsatu ere.

—Baina, erotuta zaude?

—Ez, ez, aberatsa, aberatsa! —Joxe negar egiten zegoen.



—Aberatsa? Nork sartu dizu hori buruan?

—Loteria, loteria... —Kale beheara zihuan Joxe.

—Tontuna, loteria tokatu zaiola dio. Hainbeste denbora ezer egin gabe, bere garunak zelulak ezabatu egin dira.

Joxe, berriz, pozik porturantz zihoazela neska polita baino politagoak bere pausak gelditu zituen.

—Joxe, ni ikustera etorri al zara?

—Ba... beno...

—Ez duzu ezer ekarri nerretzat?

—Ba... —Joxek zolurantz zuen burua eta eskuak poltsikoetan.

—Bueno, ba... beti berdin, normalean neska batek senargai bat duenean, honek opariak egiten dizkio neskari, bere amodioa adierazteko.

—Badakizu, ni lanik gabe... —Joxek eskuak poltsikoetatik atera, eta momentu hartan konturatu zen loteriaz. Aberatsa zen. Joxek neskaren eskuak hartu, bere begiak ikusi eta:

—Loteria tokatu zait.

—Aaa... —Neskak bere eskuak kendu eta bi pausu atzera egin zituen.

—Bai, egia da.

—Aaa... —«Nire Joxe eroturik dago», pentsatu zuen neskak.

—Etorri nirekin.

—Baina...nire ama gaixorik! —Baina Joxek eskutik heldu eta kale behearentz joan ziren biak. Ohialezko dendan sartu eta horrela esan zuen Joxek:

—Zer nahi duzu, laztana?

—Ez dut ezer ulertzen —Neska bere indar guztiakin Joxeren eskuetatik askatu zen.

—Ez da zaila! Aberatsa naiz!

—Zer!

—Aberatsa, loteriazko boletoa honekin.

—Ene jainkoa, zer esaten ari zara?

—Neskak eskuak buruan ipintzen zituen bitartean.

—Begira —boletoa neskaren eskuetan ipini zuen.

—Bai, bai, boletoa bat da, eta nik Donostian atzo erositako boletoa hemen dauzkatz.

—Ez duzu ulertzen? Tuntuna zara?

—Joxe! ez hitz egin niri horrela, beste-la...

—Bestela zer? —Joxek besotik indarrez hartu zuen.

—Aaa! Askatu! —Neska ohikutzen zegoen.

—Bai, noski, barkatu. —Joxe lotsatuta zegoen.

—Adios! —Neska dendatik atera zen.

—Behartua zarenean, tuntuna deitzen dizute sosik ez duzulako eta denek zu baino gehiago direla pentsatzen dute baina bapatean aberastu egiten bazara... ez dizute sinisten eta ero bat bezala hartzen zaituzte. Kaka zaharra! Kaka zaharra! —Joxe dendatik atera eta porturantz abiatu zen.

Portuan zen gure Joxe banku batean eserita, eta laister ikusi zuen Xabi portuaren bestaldean lanetik ateratzen. Eguraldia aldatzen ari zen, hodei batzu zeuden eta baita haizea ere.

—Xabi! Xabi! —baina Xabi urrunegi zegoen. Joxe beregana korrika hasi zen, bere eskuak boletoa zuela.

—Bapatean, haize bolada batek boletoa Joxeren eskutik lapurtu zuen. Joxe ezin zion begiak kendu, eta pixkanaka pixkanaka, urperatu zen. Joxek eskuak poltsikoetan sartu eta etxeko bidea hartu zuen.

Amerika eta 1992

Aurkikuntzari buruzko bertsoak, Bortzirietako bertso eskolan botatakoak.

1/ Seinalatuta zen egun hura hilak hamabigarrena Amerikara ailegaturik ustetan heroia zena urre goseak eraman zuen Amazonatan barrena eta erabat sarraskiturik hango lurralde gehiena han utzi zuen txarrena eta ekarri zuen onena

2/ Ozeanoan beste aldean urre bila ibilita buelterakoan erregen aurrin harro harroa jarrita patata, arto ta tomatea denentzako ekarrita penintsulara ailegatu zen indiarrak han utzita eta munduan jabe bailitzan hartu zuen Amerika

3/ Kanpotar haien nagusi eta erregearen morroia helburu hura lortu ondoren pozik zegoen koroia hara larrosak ekarri eta han ahaztu zuen pozoia jende guztiak goratu zuen gizonak zeukan sasoi, lurralde hartan etsaia eta bere herrian heroia

4/ Hilketa hura gertatu zala bostehun urte pasata mundu osoan gogoratzen da zoritxarreko den data ez han ez hemen ez da barkatzen bórroka horrela da ta gure indarrak elkarbatuaz jarrai denok aurreraka guda aizkora tinko estutuz lurrazpitik aterata

Amaia Teiletxea eta Xabier Erkizia

SOZIOLINGUISTIKA IKASTAROA

NON: LEITZAN

NOIZ: Otsailak 29 - Apirilak 15

Asteazken eta Ostiralean, 19etatik 21ak arte

GAIK: "Euskararen egoera soziala eta legala"

"Un futuro para nuestro pasado"

"Soziolinguistika aplikatua"

"Euskal talde eragileak"

"Udal elebakarrak"

"Hizkuntz politika: udalak, komunitateak, estatutak"

MATRIKULA: 2.000 pta. (Langabetuak dohain)

INFORMAZIOA: (948) 50 44 00 (goizez)

Antolatzailea: Leitzako Udala. Euskara Zerbitzua.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Herri nafarra
2. Une honetan
3. Garbia
4. Zuri, dut
5. Sinadura jarri

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

1. Ibai nafarra
2. Herri arabarra
3. Izanak
4. Oihan nafarra
5. Ahulezia

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

1. Herri nafarra
2. Zutoin
3. Labore mota
4. Aretoak
5. Izango da

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

Zaharrak berri

Norata ezkurte, harata txerrien muturre.

Jendeak bezala, txerriak ere bizigarria den tokira nahi.

Esteribar

Jainkoak siestan zegola egina haiz hi!

Traketsari esana

Basaburua

—Aita, aita, hegazkin ar bat!
—Hago isilik, seme, horiek gurpilak dituk eta.

Nafarroako mahastigintzari Euro-patik datozen haizeei egokitzeko garaia ere heldu zaio, urte luzez lurralde honetako nekazaritzako arlorik

aberatsena eta sendoena izan eta gero. Horren lekuko, Erriberrin egunotan piztu den eztabaida, bertako ekoizleak bilduko lituzkeen ardandegi erraldoi

baten inguruan. Mahastizainak beraiek ez dira oraindik ados jarri, Nafarroako Gobernuak aldeko apostu sendoa egin da ere.

Erriberriko ardandegi erraldoia

PATXI ULAIAR / **ERRIBERRI**

Ardandegi erraldoi honen inguruan Erriberrin inguruko hamahiru kooperatiba bildu litezke, oro har 15 milioi litro ardo ekoizten dutenak, hau da, Nafarroako produktioaren % 25. Honi esker inbertsio handiak egin litezke Nafarroako mahastigintzaren benetako gaitza uxatzeko: modernizaziorik eza, alegia.

Hain zuzen ere, Nafarroako Gobernutik sortu zen ideia, baina jarrera desberdinak sortu ditu nekazarien artean, eta bilera asko egin eta gero, garbi dago erabat alde daudenak ez direla gehiengo. Hain zuzen ere, mahastizainek eta Gobernuak joan den asteartean Iruñean egin zuten bileran inkesta bat egitea erabaki zen, alde benetan zeintzu dauden ikusi ahal izateko. Horren ondorioz, lehendabiziko erabakiak hartuko dira, baina bai Gobernuak zein kooperatiba batzuk prozesua aurrera eramateko guztiz prest omen daude.

ASPALDIKO NAHIA ERRIBERRIN Ardandegi erraldoi hau Erriberrin inguruko kooperatiba eta ekoizle askoren nahia zen aspaldi honetan. Honen bidez Europan sartzeak ekarriko dituen zailtasunei aurre egitea zen helburua, sei milioi litro ardo bilduko lukeen ardandegi sendo bat kalitate mailarik gorena lortzeko inbertsio eta gastu guztiei aurre egiteko kapaza izango zela-koan.

Proiekturako lehendabiziko urrats serioa joan den urtarrilan Nafarroako

Mahastizaintza eta Enologia Zentruak (EVENA) Erriberrin dituen lokaletan eman zen, bertan Erriberriko eskualdeko berrehun bat mahastizain elkartu bait ziren honetaz mintzatzeko.

Lehendabiziko asmo baikorrak, baina, segituan zapuztu ziren, soilik Erriberriko Cosecheros Reunidos kooperatiba agertu bait zen ardandegiaren alde guztiz prest. Berarekin batera, Tafalla, Barasoain, Hiriberrin eta beste zenbait herritako mahastizain partikularrak, baina kanpoan gelditu ziren bertako kooperatibarik handienak, hala nola San Martin Unxekoa eta Erriberriko Cooperativa Olivetense.

Alde agertu zirenen artean, lehendabiziko kalkuluen arabera, 2,5 milioi ardo batuko lituzke, baina hau ez omen da nahikoa lortu nahi diren helburuak ziurtatzeko.

Izan ere, kooperatiba honek 400 milioi pezeta inguruko inbertsioa beharko luke aurrera egiteko, eta kooperatiba handien partaidetzak ezinbestekoa dirudi. Hauek ez dute erabateko ezetza eman, baina aldeko jarrera ez da, inondik inora, hain garbi.

Batzuek, Unxekoak kasu, ez dute interes handirik erakutsi, baina beste batzuetan bigarren fase batean sartzearen aldekoak zirela adierazi zuten, emaitzak garbi ikusterakoan. Konfindatza falta eta gauzak sobera garbi ez dauden adierazle.

Ardandegi honen zutabe izan beharko lukeen Erriberriko Cooperativa Olivetensen, bestalde, bazterrak

nahasita daude, eta bazkide askoren artean erreparo franko badago ere, gazteek aldeko jarrera erakutsi zuten gaia tratatzeko egin zen bileran.

Nafarroako Gobernuak, ardandegi bateratua sektoreendako funtsezkoa dela adierazi du behin baino gehiagotan, eta dirulaguntza bereziak iragarri zituen proiektuarendako, % 50ra heldu litezkeenak.

Hain zuzen ere, proiektua sendotzeko ideia Nafarroako Gobernutik atera zen, kontutan hartuz sektoreak dituen ezaugarriak

—sobera zaharkitua eta atzertua—, eta Europako egoera berriak ekarriko dituen erronka berriak izango direla medio.

Horrela, Jose Cruz Perez Lapazaran Nekazaritza kontseilariak, eta Erriberrin bertan ardoaren komertzioari buruz egin ziren ihardunaldien barruan,

mota honetako ardandegia Europako merkatuan eta etorkizunean besteen parean aritzeko «aukera bakarra» zela adierazi zuen. Juan Cruz Alli lehendakariak berak horrelako proiektuak «ezinbestekoak» zirela esan zuen.

Mahastizain eta kooperatibek, baina, ez dituzte gauzak hain garbi, eta honek ekarriko lituzkeen inbertsioak ongi neurtu nahi dituzte. Auzia ez da-

go itxita, beraz, baina askoren mentalitatea sobera aldatu beharko litza-teke ziztu bizian aldatuko den egoera berriari aurre egiteko. Hurrengo erreferentzia hamabost egun barru izango da, gobernua egiten ari den inkestaren emaitzak ezagutzera-koan. Mahastizain zenbaitzuk garbi esan dute aurrera egingen dutela. Auziak izan dira betidanik nekazari-riak, eta orain ez dira atzean geldituko.



Gazteak ausardiaz, zaharrak temaz

P.U. / **ERRIBERRI**

Mahastizainen artean sortutako jarrera desberdinak ez dira, lehendabiziko kirikadan irudituko lukeen ez bezala, ardandegiaren proiektua bera eztabaidagai delako, egin behar diren inbertsioei buruz ikuspuntu desberdinak direla medio baizik.

Ardandegi hauetan Nafarroako ardoaren % 25 ekoizten da baina sobera zaharkiturik daude, eta ez dute ia deus komertzializatzen. Horri aurre egiteko ardandegi berri batek, aurrerapen guztiekin, ia 400 milioi pezetako kostua izango luke, eta Nafarroako Gobernuak ia erdia emango zuela iragarri badu ere, nekazarien arteko irizpide desberdinak nabariak dira.

Juan Jesus Corcin Erriberriko 'Cosecheros Reunidos' ardandegiko partaidea eta EHNE sindikatukoak azaltzen duenez, mahastizainen artean «beldur sobera» sortu du egitasmoak «Nafarroako nekazaritzan ez bait dago lurra, jendea sobera zaharkiturik dago, eta oso atzerakoiak direlako hemen. Gauza berriek beti erreparo handia sortzen dute».

Hori dela eta, bere kooperatiban

kontrako jarrera da nagusi, eta inguruko handienetakoa izanda, bere erabakiak atzera bota du beste asko. Hala ere, Corcinek berak onartzen duenez, ardandegi berriak «guztiz derrigorrezkoak dira benetako kalitatea lortu ahal izateko. Gainera, gu geuk komertzializatu behar dugu produktua, orain 45 pezetan saltzen bait dugu litroa, eta gero 120-180 pezetetan saltzen bait da».

Horregatik, garbi dago gazteak berrikuntzaren alde daudela, eta oraingo egitasmoak aurrera egiten ez badu, elkarte txikia sortzearen aldekoa da Corcin, «hamar bazkideen artean edo, estatutu berrituak eta kalitatezko produktioarekin».

Iritzi berekoa da Jose Luis Tanco UAGN sindikatuaren partaidea. «Gure bizibideak hemendik atera nahi dugunok garbi ditugu gauzak, baina arazoa da zaharrek edota beste lanbideak dituztenek ez dutela milioi bat edo bi milioi pezetako inbertsioa egin nahi, ez dutelako hemen beren etorkizuna».

Tanco joan den asteartean Nafarroako Gobernuarekin bileran egon zen, eta prest dauden artean aurrera egiteko asmoa nahiko garbi da-

goela adierazten du. «Produktzio urriagorekin ere egin daiteke, baina etorkizunari begira egin behar da, beti ere».

Kooperatibetan, baina, ez da erabateko ezetza eman, eta sindikatuek bezala, proiektuaren azterketa sakona eskatzen dute ondoren erabakia sendoa hartzeko. Jose Maria Luke 'Union de Cooperativas' erakundeko lehendakariak esan duenez, «beharrezkoena azterketa serioa da, ardandegi bakoitzaren egoera zein den aztertu eta ondoren erabaki bateratua hartzeko». Bere esanetan, ilusio handia dago komertzializatzen hasteko, «eta horretarako denon batasuna oso mesedegarria litzateke, baina denon eskaerak eta iritziak entzun behar dira, eta ondoren benetan bideragarria izanen den proiektua atera behar da aurrera».

UAGN zein EHNE sindikatuek Nekazaritza kontseilariari elkarrizketa eskatua diote, eta biek sektoreak behar duen berrikuntza azpimarra-

tzen dute, ez bakarrik Erriberrin inguruan, Nafarroa osoan baizik. Horrela, horien ustez, hemengo kooperatibeen balizko batasuna lurraldeko beste tokitara ere zabalduta liteke.

Jesus Atxa

.....euskaltzale

«Ikastolak dira euskal kulturak izan duen fenomenorik handiena»

Duela 72 urte Aretxabaletan (Gipuzkoa) jaio zen Jesus Atxak bere bizitzaren zati handia eman du Nafarroan, beti ikastolen munduan. San Fermin ikastolako zuzendari ohia, joan den asteburuan Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen omenaldia jaso zuen, eta

ikastolen historia osatzeko Joseba Intxaustik zuzentzen duen taldearen barruan ari da lanean, datuak bilduz eta elkarrizketak eginez. Guzti horren atzetik, ikastolen aldeko defendatzaile gartsua, berak esaten duen bezala «sorrerako gogoei jarraitu behar zaielako».

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Zein motatako lana da prestatzen ari zaretena?

JESUS ATXA.— Euskal Herriko ikastolen historia biltzea da gure lanaren helburua. Ikaskultur izeneko fundazioaren barruan dago kokatuta egitasmo hau, eta Ioseba Intxausti jauna da bertako zuzendari eta buru. Helburua ez da, baina, historia bakarrik egitea, ikertzaile eta historiagileentzat ahal den eta artxiborik osatuena eratzea baizik. Asmo hau ikastolen Elkarteak onartu zuen Iruñean duela bi

urte egin zen biltzar nagusian eta hor aurkeztu zen lehendabiziko egitasmoa, hau da, ikastolak sortzeko eta garatzeko Euskal Herrian egin diren ahalegin eta lan guztien historia idatzi ahal izateko langai—ahozko zein idatziak— guztiak bildu, sailkatu eta ikerlarien eskuetara pasatzea.

EGUNKARIA.— Eta ahozko materialaren barruan zer sartuko duzue?

ATXA.— Hauek beteko lukete lanaren esparru garrantzitsu bat. Ikastoletan aintzindari jardun zuten hainbat pertsonen oroitzapenak jasoko dira, kontutan hartuz garai hartako zehaztapen asko ezkutuak gelditu zirela, paperen beldurrez. Iturri mintzatuak ekarpenik aberatsenak eskeini ditzateke. Idazketa, beti ere, irtenbide eskolatua da, minoritarioa, eta mintzatuz ematen ditugu gehienetan gure sentipen egiazkoen eta berezkoenak. Idazkerara bakarrik jotzea historiaren zati txikia jasotzea litzateke.

EGUNKARIA.— Horretarako inkesta edo galdetegi bat izango duzue.

ATXA.— Baldintzapen handiak ditu halako lan batek. Ezin du inprobisatua izan, baina nolana ere jakineko galdera batzuk izango dira: nola hasi ziren ikastoletan, zergatik, noren bidez, zer nolako harremanak eta abar...

EGUNKARIA.—

Eta Nafarroan, kasu, zeintzu lirarteki izen azpimarratzeak, garai hartakoak?


ATXA.— Nafarroan, ezin garbiago, Jorge Cortes Izal izan zen. Edozein herrira joan eta hango ikastolaren historian miatu eta gero, hari guztiak berarengana eramaten gaituzte. Berau izan zen Iruñean aitzindari, eta berak zabaldu zuen Nafarroako lehendabiziko ikastola, 1965an, baina jaio zen egun berean, oraindik bataiatzeke, Gobernadorearen aginduz hil zen.

EGUNKARIA.— Idazkien atalean, zer bilduko da?

ATXA.— Hor, nonnahi egon litezkeen ikastolei buruzko papera eta idazki bildu nahi dira. Askotan, ikastoleatik kanpo egongo direnak edota ikastoletan lan egin zutenen etxeetan, ikastolekin harremanetan izan zuten erakundearen artxiboetan, bai pribatu nola publikoetan. Mota guztietako fakturak, deialdiak, aldiakariak, berriak...

EGUNKARIA.— Asko eta asko galduak izango dira, jendeak ezagutzen ez dituenak.

ATXA.— Bai, eta interesgarrienak



Jesus Atxa.

JOXE

ikastolen legeztapen aurrekoak izango dira. Orduan ez zegoen artxiborik, ez paperentzako tokirik eta askotan, ezta horretarako astirik ere. Baita ere, garai hartan ikastolen kontrako paperak aurki daitezke, bai prentsan argitaratutakoak, eta baita, Iruñean gertatu zenez, buzoneatu zituzten liburuxka gisakoak ere.

Hirugarren arloa ikastolen barneko agiriak izango zen, eta hor ere gauza interesgarriak daude, akta guztiak, artxiboak, fitxak, eta abar. Hortik atera daitezke izan diren arazo guztiak, konparaketak, ezberdin-

tasunak.

EGUNKARIA.— Eta hortik ikus daitezke, adibidez, eskualden arteko desberdintasunak, edo berdintasunak?

ATXA.— Bai, badira desberdintasunak, bai sorreratik datorren abiapuntutik begiraturaz eta baita gaur egungo egoeran eta etorkizunari begira ere. Adibidez, gaur egun arazo larria eta sakona dute EAEn Euskal Eskola Publikoaren afera horrekin, eta gogorra da aurrean duten borroka. Ematen du Nafarroa baztertuta uzten dutela, eta alde batetik normala da, baina, dudarik ez, han emango dituz-

ten urratsak Nafarroarako ere izango dira, Gipuzkoa eta Bizkaiko lehendabiziko ikastolak Nafarroarako ere baliogarriak gertatu ziren antzera.

EGUNKARIA.— Eta zein da lan honen balioa?

ATXA.— Nik uste dut ikastolek izan duten oiartzuna eta arrakasta kultura

Ikastolen munduan ematen du Nafarroa baztertuta dagoela, eta alde batetik normala da, baina, dudarik gabe, han emango diren urratsak ere Nafarroarako izango dira, Gipuzkoa eta Bizkaiko lehengo ikastolak Nafarroarako baliogarriak izan ziren antzera.

arloan Euskal Herriak izan duen fenomenorik interesgarriena eta handiena izan dela. Euskararen alde egin den lan sakonena eta funtsezkoena, eta gaur ikastolen arteko jendeak berak ere ez ditu ezagutzen horren sus-traiak zergatik sortu ziren, zertarako. Horregatik, ikastolen bizitasunerako lehengo gogo horiek nik uste dut ezagutu beharra dagoela.

Gainera, lehengo garai hartan ez zegoen ez Jaurilaritzarik, ez alderdirik, ez erakunderik, ez titulurik, ez testurik, ez zegoen—eta eskerrak—gora begira egoterik... herriaren-gandik ateratako zerbait izan zen, oso gauza aberatsa. Herri bakoitzean toki bat, ikasle batzuk, andereño bat, eta bazegoen ikastola. Gaur, gehienentzat, dena bideratua dagoela ematen du.

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

